

## II ERANSKINA

### BALORAZIO-IRIZPIDEAK

#### 1.– PROPOSAMENAREN EGOKITASUNA (15 PUNTU GEHIENEZ).

1.1.– Proposamenaren egokitasuna, alderdi hauek aintzat hartuta: testuingurua, lagundutako prozesuak eta eLankidetzak indarrean dituen plangintzetan ezarritako lehentasunak: 10 puntu, gehienez.

Honako hauek baloratuko dira: proposatutako programaren izaera berritzailea; programaren egokitasun-maila, zer testuingurutuan garatzen den kontuan izanda; zer balio erantsi dakarren, eLankidetzak alde aurretik finantzatutako prozesuen aldean, eta zenbateraino datorren bat indarrean dauden plangintza-tresnetan ezarritako lehentasunekin.

1.2.– Afrikan modu esanguratsuan garatu beharreko proposamena: 5 puntu.

Afrikako herrialde batean modu esanguratsuan garatzen diren ekimenak baloratuko dira.

#### 2.– IKUSPEGI LOKAL-GLOBALA TXERTATZEA (70 PUNTU GEHIENEZ).

2.1.– Egiturazko arazoei eta erronka globalei heltzea: 15 puntu, gehienez.

Programak erantzun nahi dion egiturazko arazoa edo erronka globala argiro identifikatzea baloratuko da, bai eta programak esku hartuko duen lurraldeetan eta xede-biztanlerian duen eraginaren karakterizazioa ere. Baloratuko da, halaber, lehenetsitako erronka globala edo egiturazko arazoa koherentea izatea lurralde bakoitzean aurreikusitako helburuekin eta aurre egiteko estrategiekin.

2.2.– Iparraldeko eta Hegoaldeko entitateen arteko artikulazioa: 15 puntu, gehienez.

Honako hauek baloratuko dira: elkarteak osatzen duten Iparraldeko eta Hegoaldeko entitateek garatu beharreko lan-ildo eta -estrategien arteko koordinazio-, koherentzia- eta osagarritasun-maila; aurreikuspenen arabera, zer sinergia sortuko diren entitateen artean, eta batera jarduteak zer balio-erantsi dakarren programaren helburua lortzeko.

2.3.– Aliantzak: 15 puntu, gehienez.

Honako hauek baloratuko dira: programa garatzeko eratutako elkarteak; bertako kide diren entitateen arteko osagarritasun-maila; proposatutako helburuarekin duen egokitasuna, eta ekimena garatzeko elementu berritzaileen presentzia. Baloratuko da, era berean, elkarteko entitateek zer aliantza egingo duten programa lurralde eta maila guztietan garatzeko.

2.4.– Maila anitzeko ekintza: 15 puntu, gehienez.

Programaren ekintza-esparrua aztertuko da, tokiko, estatuko eta nazioarteko mailak bereizita. Maila horietarako aurreikusitako lan-ildoaren artikulazio-maila baloratuko da, eta aztertuko da zer ekarpen egiten duten programaren helburua lortzeko.

2.5.– Norbanakoei laguntzea eta herritartasun globala eraikitzea: 10 puntu, gehienez.

Programan xede-biztanleriarekin planteatutako lan-ildoak eta -estrategiak aztertuko dira,

eta baloratuko da zer ekarpen egiten duten kontzientzia kritikoa hartzen laguntzeko eta borondate eta ekintza eraldatzaileak bultzatzeko. Baloratuko da, era berean, programak zer ahalmen duen lurralde bakoitzeko xede-biztanleria konektatzeko.

3.– PLANTEATUTAKO IDENTIFIKAZIO-PROZESUA (15 PUNTU, GEHIENEZ; SOILIK AURREKO APARTATUEK GUTXIENEZ 40 PUNTU BATU DITUZTEN KASUETARAKO).

Baloratuko da programaren esku hartzerako helburu eta estrategiak koherenteak izatea identifikazio-faserako helburuekin, aurreikusitako jardurekin eta espero diren produktuekin. Baloratuko da, halaber, elkartea osatzen duten entitateek zer eginkizun betetzen duten identifikazio-ekintzetan, bai eta xede-biztanleek zer partaidetza duten ekintza horietan ere. Azkenik, identifikazio-prozesuan zenbait elementu sartzea baloratuko da: zehazki, programen bideragarritasuna indartzen dutenak, eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak lehenetsitako ikuspegi lokal-globala eta zeharkako gainerako ikuspegiak programetan sartzen laguntzen dutenak.